



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, LANTZIEGOKO UDALAREN 2001-EKO FISKALIZAZIO TXOSTENA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Arabako Batzar Nagusien Ogasun, Finantza eta Aurrekontuen Batzordeak hala eskatuta Lantziegoko Udalaren 2001eko urtealdiko ekonomia-finantza jardueraren eta Kontu Orokorraren fiskalizazio txostena hezurmamitu du.

Txostenean, Erakunde Fiskalizatzaileak ekonomia-finantzaren jarduerari ezargarria zaion arautegia betetzeari dagokionez aldeko iritzia eman du. Nolanahi ere, hainbat salbuespen egin dira honen gainean eta besteak beste, aipatzekoa da 696 mila euroko urbanizazio obra baten esleipena, horretarako behar hainbateko aurrekontu izendapenik gabe gauzatu dela, hurrengo urtealdira arte dagokion aurrekontu aldaketa izapidatu ez izateagatik.

Udal kontuei dagokienez, 97 mila euroko zenbatekodun kobrantzak oker sailkatu izana salbuetsita, HKEEk uste du horiek zuzentasunez islatzen dutela udal jarduera ekonomikoa eta bere finantza eta ondare egoera.

Txostenak baditu, gainera, beste hainbat huts eta horiek zuzentzeko gomendioak, kontratazio, langileria, zergen kudeaketa eta aurrekontua eta kontabilitatearen alorrei dagozkienak.

Finantzaren azterlanetik bereziki azpimarratzekoa da udal zorrik ia batere ez izatea. Emaitei dagokienez, emaitza arrunta tamaina bereko udallerriena baino txikiagoa dela esaten da, hein handi batean udalak sortzen dituen sarrera txikien ondorioz.